



BERRIOBEITIKO UDALAK JAKINARAZTEN DU:

Bai Artikan bai Berriogoitin baratze ekologiko baten titular diren pertsona guztiei, aurreko legealdian baratzeen etorkizunari buruz sortu zen ziurgabetasuna dela eta, gobernu-talde honek **lagapenarekin jarraitzeko asmoa baitu eta, etorkizunean, baratze ekologiko berriak sortzea ere sustatu nahi du**, hirigintza-garapen iraunkorreko erduei jarraituz.

Alde batetik, hurrengo egunetan, datozen urteetarako egungo baratze ekologikoen kontzesio-sistema arautzeko prozesua aurkeztuko da, gaur egun dagoen nahasmena saihesteko (hutsik dauden edo legez kanpo okupatutako baratzeak, okupatutako bideak, sarbideetako garbiketa eza, mugetatik kanpoko landaketak...). Irizpideak baratzen ordenantzaren arabera ezarriko dira (ordenantza aldatu eta hobetu egingen da).

Bestalde, lehenengo emakida-kontratuak 2024. urtean amaitzen direnez, jakinarazten dizuegu urte-bukaera baino lehen egingo dela **kontratu amaitzen duten baratzeak esleitzeko zozketa**. Kontzesioa emateko egungo prozedura aldatuko denez, interesa duten guztiei (erroldatuak) azalpenak emateko **bilera** batera deituko zaie, sor daitezkeen zalantzak argitzeko.

Gogoratu Berriobeitiko udalerrian erroldatuta dauden interesdunek parte har dezaketela zozketan.